

ek!

eta kitto!
euskararen elkarteak

2024ko maiatzak 3 • 1311 zenbakia



ETXEKOEN AURREAN LUZITZEKO GOGOZ



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea

KUDEAKETA

- ✓ Otrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Euzko Jaurritza
 - Udala

LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enklama erreklaiazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza



30 URTEK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRIETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6tik 24ra

★
IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOIA



F



- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

M



- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK

A



- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arantsalek
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

I



- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



ESPEZIALIZAZIOAK
ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Oteola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | ikastaritza@uni.eus | [uni.eus](https://www.uni.eus)

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKA
JOSE MARIA AIZUMENDIARRAETA, 42001 E.

#LanerakoGertu

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemien Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa

ATE IREKIAK

Maiatzak 4

11:00etan

Eman
izen!



MGEP: 664298683 // 664298704

mondragon.edu/lanbideheziketa

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Eibar BHI-ko ikasleek Elbar School Musical ikuskizuna eskainiko dute datorren astean Coliseo antzokian. Andrea Covadonga aritu da aktore gazteak zuzentzen eta, ikuskizunaz gain, bere ibilbide artistikoaz berba egiteko aprobetxatu du.

etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Gorka Lasuen

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Ohiko datu-zentro batek 25.000 etxebizitzetako elektrizitate beste kontsumitzen du eta urtero 25 milioi ur-litro `edaten`. Eta hodei globalaren kosto energetikoa bost alditan biderkatuko da hemendik 2030era arte, izan adimen artifizial sortzaileen, robotika berrien... konputazioak eskatzen dituzten beharrei erantzuteko. Instalazio horiek guztiak gero eta handiagoak dira, eta beroketa globalaren testuinguruan jasanezinak bihurtu daitezke. Bi adibide: Txinako konpainia batzuk 140 futbol-zelairen superfizia hartzen duen datu-zentroa dihardute eraikitzen; bestetik, ChatGPT bezalako lengoaia-eredu batek litro bat ur behar du ehun kontsultako sortzen den beroa lurrintzeko. Datu-zentro horiek ilargira eramatea? Lurra txikia geratzen bazaigu, horrek ez digu eskubiderik ematen espazioa kutsatzeko.

LUIS COSTERO, Konputagailuen Arkitektura irakaslea

Adimen Artifizialak sektore sortzaile guztiei eragiten die. Toki guztietan hitz egiten da AAz moda bat balitz bezala eta erakundeek, udalek... nahi dute moda horretara igo. Azaleko informazioa eta arinkeria horrek kalte egiten digu. Botoi bat sakatzea eta obra bat sortzea ezerezetik, nondik dator? Abusu batetik. Software enpresa horiek materiala lapurtzen dute Interneten, erauzketa-meataritza egiten dute. Harrapatzen dituzten irudiak datu bihurtzen dituzte gero saltzeko. Ustezko eduki berri horien egiletza eskubideak, gainera, ez dira erabiltzailearenak, softwarearenak baizik. Abokatuak eztabaidan ari dira gaur egun argitzeko nor den egile legala. Esaten dute jatorrizko ordenagailua dela, baina zein da hori? Softwarea entrenatzeko erabili dena edo hori instalatzen duen erabiltzailearena?

ELISABETH PEREZ, ilustratzailea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PAGAU → Ordaindu. Mundu honetan dana pagatzen da, lehenago edo geruago.

PAGATZIAK EZ ESTUTU → Ordaintzeko orduan aitzakiatan ez ibili.
"Ha behintzat pagatziak ez dau estutuko".

Argazki zaharra

1930

Maiatzaren
Lehena Eibarren

Argazkia egin zen urte zehatza ez da ezagutzen, baina irudia 30. hamarkadan, Eibarren Maiatzaren Lehena ospatzeko manifestazioan egindakoa da. Hala dago jasota argazkia gordeta dagoen Salamancako Memoria Historikoaren Zentroan.



Farmaziak

BARIXAKUA 3
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 4
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 6
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 7
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
EGUAZTENA 8
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
EGUENA 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 10
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Juan Angel Agote Txurruka.** 73 urte. 2024-04-24.
- **Isabel Garitaonandia Martinez.** 83 urte. 2024-04-25.
- **Isidro Rodriguez Mantaras.** 89 urte. 2024-04-27.
- **Jesus Puente Aja.** 80 urte. 2024-04-29.
- **Natividad Azkarate Huarte.** 78 urte. 2024-04-29.



Merka dendako langileak beraien lan- eskubideen alde mobilizatzen hasi dira

Gipuzkoako Merka zapata-dendetako 50 langileak greba egiten hasi dira apirilean, barixaku eta zapatuetan, eta horrela jarraituko dute maiatzean, egoera konpontzen ez bada. Lan-baldintza prekarioak eta negoziazioen blokeoa salatzen dute: “Enpresak ez du hitzarmenik nahi, eta edukietan ere ez du aurrerapausorik ematen. Hori dela eta, mobilizazio egutegi bat adostu dugu, egoerari irtenbidea eman ahal izateko. Barixakuero Oiartzunen biltzen gara, Merka Calzados-en bulego

azpian, eta zapatuetan dendetan egiten dugu protesta, txandaka”. Beharginen oinarrizko eskubideak errespetatzea nahi dute: “Ez zaigu asteko atsedena errespetatzen, ia asteburu guztietan egiten dugu lan, eta libratzen ditugun zapatu gutxi horiek ezin ditugu aukeratu”. Beraien lan-baldintzak beteko dituen hitzarmen propioa izatea ere eskatzen diote enpresari. Hainbat herritan protestak egin eta gero, gauza bera egingo dute maiatzaren 11n Arrasaten, 18an Azkoitia eta 25ean Eibarren.

Sanjuanetan txosnak Txaltxa Zelaian ipintzeko ados jarri dira JHH eta Udala

Hilabeteetako tira-bira luzea eta gero, Jaixak Herrixak Herrixandako taldekoak eta Udaleko ordezkariak ados ipini dira eta, aurtengo Sanjuanetan, txosnak betiko tokian, Txaltxa Zelaian eta Eibarko Txikito kaleetan ipiniko dira azkenean. Udaletik jakinarazi dutenez, “akordioa lortu ondoren, bai Udalak bai herriko kolektiboek,

datorren urterako beste espazio bat zehazteko prozesu bat abiatuko dute”. Txaltxa Zelaian ur-parkea egiteko lanen ondorioz piztu zen txosnen inguruko eztabaida, baina, azkenean, JHH-ren txosna beste guztiekin batera ipiniko dute, Txaltxa Zelaian, eta kontzertuetarako eszenatokia ere bertan egingo da.



Agifesek babes judizialari buruzko hitzaldia antolatu du Esther Ezpondarekin

Agifes, buruko osasun arazoak dituzten pertsonen eta haien senideen Gipuzkoako elkarteak, hitzaldia antolatu du, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen babes juridikorako zer neurri har daitezkeen azaltzeko. Abokatua izateaz gain Agifeseko zuzendaritza-batzordeko kidea ere baden Esther Ezpondak emango du hitzaldia, eguaztenean (maiatzak 8), Portalea kultur etxean, 18:00etan. Solasaldia ekainaren 2ko 8/2021 legearen inguruan izango da. Arau horren bidez, legeria zibila eta prozesala erreformatzen da, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa gauzaten laguntzeko. Funtsean, arau horrek desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza juridikoaren sistema nola aldatu duen azalduko du adituak: “Jada ez da hitz egiten pertsonak ezgaitzeaz, baizik eta pertsona bakoitzari behar dituen laguntza espezifikoa emateaz”, azpimarratu du. Era berean, hizlariak kolektiboarentzat eskuragarri dauden beste babes-neurri batzuk ere azalduko ditu hitzaldian.



Gaur hasiko dira Santa Kurutzeko jaiak

Santa Kurutz eguna da gaur eta hori ospatzeko egitarau zabala antolatu dute astebururako. Gaur 17:30ean kanpai-errepikarekin hasiko dira. Ondoren, 18:00etan, meza egingo da. Biharko egunari goizetik ekingo zaio: hamaiketako Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitalariek eta Usartza taldeko txistulariek girotuta, Kezka dantza taldearen emanaldia, erraldoiak,

buruhandiak eta haurrentzako jolasak eta herri kirolak egongo dira, besteak beste. Eta domekan Santa Kurutzera igoera egingo da, 09:45ean Urkizuko iturritik abiatuta. Saria zozketatuko da partehartzaile guztien artean eta izenematea egunean bertan izango da. Meza nagusia 11:00etan ospatuko dute, eta ondoren piskolabisa egongo da.



Cristina Chiquín Guatemalako argazki- kazetariaren hitzaldia

Maiatzaren 6an, astelehena, arratsaldeko 18:30ean Andretxean izango den hitzaldi-solasaldia Entreamigos-Lagun Artean GG-KErekin lankidetzan argitaratu berri dituen *La Búsqueda* argazki-liburuetatik abiatuko da. Bertan, Guatemalako emakumeek justiziara ailegatzeko dauzkaten zailtasunak dokumentatu ditu egileak. Herrialde horretan gertatzen diren feminizidioen aurrean, justizia bila borrokatzen diren andrei buruz arituko da berbetan.



Dia das Letras Galegas jaietarako prestatzen joateko gaita-poteoa egingo da bihar eguerdian Urkizun

As Burgas Galiziako Etxeak antolatuta urtero ospatzen diren Dia Das Letras Galegas jaiak maiatzaren 10etik 12ra ospatuko dira, baina girotzen joateko aukera egongo da bihar, 12:00etatik aurrera Urkizuko tabernetan egingo den gaita-poteoan. Os Galaicos Eibarko Galiziako Etxeko taldekoak eta Laudioko gaita taldekoak arituko dira, taberna batetik bestera.



Trenaren zarata murrizteko neurriak

Eibarko Udalaren eskaerari erantzunez, Eusko Trenbide Sareak pantaila akustikoak, itxiturak, hormigoizko babesak eta panel xurgatzaileak jarri ditu Ardantza eta Amañako geltokien arteko hormetan. Lanen aurrekontua 549.000 eurokoa izan da guztira.



Estaziño-Azitain pasealekua eraikitzeko lanek askoren arreta piztu dute

Estaziñotik Azitainera bitartean, trenbide gaineko pasealekua egiteko lanek ikusmin handia piztu zuten aurreko asteburu osoan zehar. Izan ere, pasealekurako pasarella-zatiak ipintzen dihardute, eta oso handiak diren bi garabi berezi eraibiltzen ari dira horretarako. Bidegorriarekin lotzeko pasealekuaren eraikuntza-lanak bi fasetan egingo dira eta lehen egunotan hasi da: 135 metroan zehar plataforma bat instalatuko dute, tren geltokitik saihasbidearen jaitsieraraino

doan tartean. Pasarella zati horiei eusteko zutabeak abenduan ipini zituzten, eta horretarako lanak Matsaria kaletik egin zituzten. Pasarella-zati guztiak ipintzen amaitu eta, jarraian, dena hormigoiztatuko da, pasealekua ikusgarriago egiteko. Bigarren fasean, saihasbideetik Azitaineraino doan tartean (930 metro), Amañan dagoenaren oso antzekoa izango den arkupedun egitura jasoko dute. Lan guztiak 2025. urteko udarako amaituta egotea espero dute.

Sonia Archelik beteko du Patricia Arrizabalagaren tokia Berdintasun Sailean

Patricia Arrizabalaga Larrañagak zinegotzi izateari laga dio, asteleheneko Udal Osoko Bilkuran bere dimisioa gauzatu eta gero. 2015eko udal-hauteskundeen ondoren, zinegotzi karguan egon den bederatzire urte hauetan, Udaleko ardurak eta estetika-lanak bateratu ditu. Batzorde ezberdinetan aritu bada, Berdintasun Sailean utzi du arrastorik handiena. Sail horretan berak lagatako tokia Sonia Archeli Mesonero hartuko du. Horrez gain, alkateak Gobernu Taldea berrantolatatu egingo du, batzordeen presidenteei zein bokalei dagokienez.



Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren Azoka egingo da maiatzaren 11n

Egoaizia, Aldatzen eta Proyde-Proega GGKEek batera antolatutako Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren Azoka hartuko du Untzagak datorren asteburuan, maiatzaren 11n. Goizez izango da, 10:00etatik 14:30 bitartean, "eta bertaratzen diren guztientzat esperientzia aberasgarria izango dela" adierazi dute antolatzaileek. *Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna: Giza esku-*

bideetan, duintasunean eta ingurumenaren babesean arreta jarritz, genero-ikuspegitik goiburuarekin, azokak bidezko merkataritzaren garrantzia eta emakumeak arlo horretan duen parte-hartzea nabarmentzea du helburu. Bisitariek hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango dute goiz osoan zehar, eta Osoa Cooking-en zuzeneko sukaldaritzako showa ere egingo da.



Niceto Alcala Zamora
presidentea, Eibarko
emakume errepublikazalez
inguratuta, Armeria Eskolan
(1932-9-13).
CASTRILLO-ORTUOSTE FUNTSA.

Errepublikaren eraginez,
guraso batzuek ez zituzten
euren umeak bataiatu eta,
horregatik, ez zieten santu
edo santaren izena jarri,
bestelakoak baizik: Paz,
Nieves, Aurora... edo lore
izenak (Rosa, Jacinta..).

Errepublikaren eragina nesken izenetan

Jose Echeverria Ayerbe Querido
(1912 – 2001)



Eibarren jaio zen 1912. urtean. Aita akabatzailea zen Beisteginean. Eskola munizipaletan egin zituen lehen ikasketak, eta ondoren Armeria Eskola amaitu zuen. 17 urterekin "Izar"-era joan zen lan egitera, Zornotzara. Handik urte batzuetara Alfan hasi zen eta 50 urte egin zituen bertan. Errepublika garaia eta 1934ko urriko iraultza bete-betean ezagutu zituen. Gerra sasoiari, Amuategi Batailoian egon zen. Indalecio Prietok Armeria Eskolako gazteak eskatu zituen, eta beste eibartar askorekin batera "Los Alcázares"-era (abiazio akademiara) joan zen 3 hilabeteko ikastaro bat egitera.

Jose Echeverriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Errepublika garaiko gauza bat, fenomeno bat, Eibarkoa da. Oso-oso bitxia omen da eta Eibarko propioa da: nesken izenak. Garai hartan jaio ziren neskek, landare izenak dittuzte: Hortensia, Rosa, Jacinta... eta horrelakoak. Nola esplikatzen da hori?] Eibarren baziran umiak, ez ziranak izan bautizauta. Eta orduan gurasuak, santu izena ez etsen ipintzen: Aurora, Nieves... [Bai, lehen esan ditudanak: Rosa edo Hortensia... Eta horiek e... bolada bat izan zan, e?] Bai... Izen politak ziran [Hala ere, neskak oso politak baldin baziren...] Nik, lehengusiña bi nekazen: bata Paz eta bestia Nieves [Ha hor ba! Libertad ere bazan!] Libertad be bai! Eta Aurora... [Baskaranena] Baskaranena. Eta beste batzuk be bai... Hori, Aurora, itxuria, Franziatik edo, Reboluziñotik asmautako izena zan [Bueno! Horiek guzti horiek dauzkagu...].

Antzerkia gazteekin eta gazteentzat

Debarreneko eskola arteko 39. antzerki erakusketa hasi zen martitzenean eta hainbat ikuskizun eskainiko dituzte maiatzaren 13an. Tartean, Eibar BHI-ko DBH-ko 1. eta 2. mailako ikasleek Eibar School Musical izeneko antzezlana eskainiko dute hilaren 8an (09:30ean LH-ko 6. mailakoentzat eta 19:00etan irekia, 5 euroren truke) eta 10ean (10:00etan DBH 1-koentzat eta 12:00etan DBH 2-koentzat), Coliseo antzokian.

BIDEOA



Andrea Covadonga aktore eibartarra izanda, beste behin, herriko aktore gazteen zuzendaria. Urteak daramatza Eibar BHI-ko ikasleekin antzezlana prestatzen eta, aurreko urteetako arrakasta ikusita, beste behin izan du ardura hori.

Oraingo honetan, High School Musical pelikula oinarri hartuta, Eibar School Musical ikuskizuna sortu du eta honakoa dio sinopsiak: “Gorane Mendik eta Anele Zubiak udako oporretan ezagutzen dute elkar karaoke batean. Anele saskibalo taldeko kapitaina da eta Gorane Eibarko institutura iristen den ikasle bikaina. Antzerkiko musikalean izena ematea erabaki dute, baina besteek zer iritzi dute?”. Andreamen berbetan, “jatorrizko pelikulan agertzen diren gauza batzuk azaltzen dira, baina beste buelta bat eman diot”.

Estreinaldia gertu dute antzezlanean parte hartuko duten aktoreek. Batzuek badute eskarmentua, iaz ere aritu zirelako, baina beste batzuentzat lehendabiziko aldia izango da eta pixka bat urduri daudela aitortu digu zuzendariak: “Orain arte oso lasai egon dira, baina data gerturatzeko doa eta urduritzen hasi dira”.

Antzerkia mundu berria da ikasle gazteentzat eta, Andreak esan digunaren arabera, “hasieran ez dute oso ondo ulertzen. Gidoia eman eta ‘zer da hau?’, galetzen dute. Orduan, testua eman baino lehen eurekin jolas asko egiten ditut eta jolasen bitartez gidoia lantzen ikasten dute”.


Zuzendariarentzat prozesu hori oso polita izaten da. “Ni ere oso urdurijartzen naiz, emaitza ona ateratzea nahi dudalako, baina zoragarria da”, aitortu digunez. Urtero erronka berri bati egin behar dio aurre, baina azken sei urteetan egindako lanak erakusten du oso harrera ona izaten duela. “Proiektua Eibarren Akebaik bultzatu zuen orain dela sei urte behin bakarrik egiteko asmoarekin, baina hain ondo aterazen, aurrera egin genuela”, diosku Andreak.

Proiektu honekin, ikasleei antzerkia egiteko aukera emateaz gain, bestelako erremintak eskaintzen zaizkie. “Antzerkia lotsa kentzeko oso tresna baliagarria da eta, bestetik, eurentzat gertukoak diren gaiak lantzen saiatzen naiz. Adibidez, bullyinga edo euren arteko harremanak. Horrela, antzerkian gai horiek sartzen ditut, ikusten dute euren egunerokoan bizi dituzten egoerak izan daitezkeela eta lagungarria egiten zaie”, zuzendariaren ustez.

Ikasleek, gainera, oso gustora dihardute antzerkia egiten. “Eurei asko gustatzen zaie. Ez daude bertan parte hartzera derrigortuta, euren kabuz ematen dute izena, eta demaseko prestutasuna erakusten dute gauzak egiteko orduan”, Andrearen berbetan. Talde bakoitzean 20 lagun inguruk hartzen dute parte, eta ikasle kopuruaren eta euren profilararen arabera egokitzen ditu ikuskizunak zuzendariak.

Antzerkia bokazio

Orain zuzendari lanetan dabil, baina Andreak ere beste aldetik bizi izan



Eibar BHI-ko ikasleen antzerki-zuzendaria izateaz gain, Glu Glu antzerki taldearekin 10 urte daramatza lanean Andreak.

Eibar BHI-ko ikasleek Eibar School Musical antzezlan eskainiko dute maiatzaren 8an eta 10ean, Andrea Covadongak zuzenduta



du egoera hau. “Txikitatik pila bat gustatu zait antzerkia egitea. Gelan, norbait oholtzara zerbait egitera irten behar bazen, berehala aurkezten nuen neure burua”, diosku. “Horregatik joan nintzen bide horretatik”.

Lehen antzezlan La Sallen ikasleen ari zenean eskaini zuen. “Paper bat geratu zen soberan. Gizonezko bat antzeztu behar zen eta neure burua aurkeztu nuen. Beraz, mozo-rotu egin nintzen, bibote eta guzti, eta aurrera”, kontatu digu.

Harrezkero, interpretazioaren mundutik egin du bidea. “Donostian antzerkia ikasi nuen, dantza ere urte askoan egin dut, eta ikasketak amaitzerakoan Glu Glu antzerki taldeko kide izateko castinga egin nuen. Hartu egin ninduten eta 10 urte daramatzat eurekin lanean antzerki-musikalak egiten. Ikus-entzunezkoetan ere aritu naiz, baina antzerkian batez ere”, azaldu digu Andreak. Gainera, umeei zuzenduriko ikuskizunetan ikusi dugu sarritan. “Asko gustatzen zait umeentzat aktuatzea. Umeak zailak dira ikusle moduan. Ikuskizunera engantxatuta ez badaude, paso egiten dute, baina oholtzatik euren aurpegiak ikustea zoragarria da. Oso publiko zintzoa da”.

Pelikula edo telesail bat egitea gustatuko litzaioke, “baina famak beldurra ematen dit”, aitortu digu. Zergatik? “Kaletik amarekin joatea eta jendea begira edo argazkiak egiten egotea ez zait gustatzen. Baina tira, pelikula bat egin nahi badut, arlo hori elkarrekin dator”, diosku. Ez harritu denbora gutxian bere aurpegia pantaila txikian edo handian ikusten baduzue.

“Orain dela 40 urte ezinezkoa zen imajinatzea Eibarren eta inguruan jazz musikaririk egotea”

MIKEL GAZTELURRUTIA • Musikaria



Pianojole eibartarrak bere hirugarren diskoa kaleratu du: Black on white. Pianoko tekla zuri-beltzetatik abiatuz, jazz-doinu koloretsuak igortzen ditu Aritza Castro eta Javier Callen musikariek lagunduta.

Orain, diskoa zuzenean aurkezteko ordua heldu zaio Mikel Gaztelurrutia Trio taldeari eta Coliseo antzokian arituko dira bihar, 20:00etatik aurrera.

Mikel Gaztelurrutiak bere buruarekin eta artearekin duen konpromisoaren eta printzipioen adierazpena da 'Black on White'. “Asmo aitoren bat, egileak bere buruarekin eta bere sormenarekin duen konpromiso hautsezina”, Errebal Jazz zigiluaren arabera. Berba ederrak dira, baina zein hobe artista bera baino diskoari buruz berba egiteko? Jarraian batu ditugu telefonoaren beste aldetik kontatu dizkigunak.

Nolako diskoa da 'Black on white'?

Disko oso eklektikoa da eta, egiten ditudan grabazio guztietan bezala, egiten dudan lehenengo gauza 'disko-egarrria' sortzea da, hau da, jendeari egarrria eragitea. Izan ere, gero eta gutxiago gertatzen da, baina normalean jendeak jazz entzuten duenean ikaratu egiten da eta tira. Jazz oso zabala da eta jendeak hausnarketa txiki bat egiten duenean berari gustatzen zaion estiloa edo estilo asko aurkitzen ditu, denetarik baitago. Gustatzen zaidan musika egiten saiatu naiz, baina musika ona eta musika dibertigarria aldi berean ere egin daitekeela pentsatzen dut.

Zergatik 'Black on white' izenburua?

Izenburuak zenbait gauza islatu nahi ditu. Alde batetik,

piano baten teklak beltzak eta zuriak dira. Gero, egunerokotasunean gela txuri-txuri batean egiten dut lan eta erdian piano beltz bat dago. Hori ere bada 'Black on white'. Bestetik, 'Black on white' bizitzaren kontrasteak ere badira. Toki batean gaude eta bat-batean bizitzak beste kolore bat ematen digu. Bizitza aldatzen doa, norberaren bizitzara polikromia ezberdinak ekarriz, eta kontraste hori ere islatu nahi du izenburuak. Baina batez ere, musikalki, niretzat 'black' txikitan entzuten nuen musika beltz afroamerikarra da: Motown, Otis Redding, Marvi Gaye, Michael Jackson, Diana Ross... Eta tartean, kontserbatoriora joaten nintzen Mozart, Chopin eta Rajmaninov ikastera. Bi ikasketa horiek gakoak izan ziren nire formakuntzarako. Bata arautua eta bestea medioetan aurkitzen nuena, lagunek diskoen bitartez partekatzen genuena. Bi eskola oso politak izan ziren.

Hirugarren diskoa da zuretzat. Aldea dago beste biek konparatuz gero edo jarraikortasun bat dago?

Disko berriak ildo bat jarraitzen duela uste dut. Disko bat egiten duzunean, bukaera ikusi arte ez dakizu zein ukitu edo emaitza izango duen, eta uste dut oraingo honetan badagoela ildo bat. Jazz amerikanoa eta musika beltza da ildo hori. Esentzia hori, belztasun hori, oso



Jaioterrian jotzea berezia dela aitortu digu Mikel Gaztelurrutiak.

garrantzitsua da. Aurreko proiektuetan beste modu batzuetan irudikatu arren, badago ukitu hori. Eta hurrengo diskoan, abian dagoen laugarren diskoan, belztasun hori atzeman daiteke. Txikitatik entzundako musika hori nire DNAaren barrenean dago eta doinuak subkontzientean daramatzat.

Sortzerako orduan nolako prozesua jarraitzen duzu?

Niretzat ez dago musika konposatzeko sortzeko modu bakarra. Ideia erritmikoetan, melodietan edo armonietan oinarrituta konposatu dezakezu, adibidez. Nik dena erabiltzen dut. Batzuetan erritmikan oinarritzen naiz gehiago eta, adibidez, 'Walk' (nire bigarren diska), erritmo afrokubatarretan oinarritzen da. 'Black on white' konposaketan eta moldaketan dago gehiago oinarrituta. Era berean, inprobisaziorako oinarria ere badago, baina niretzat konposaketa eta moldaketa ariketa izan da gehiago.

Aritza Castro eta Javier Callen izan dituzu bidelagun diskoaren grabaketan. Zure proiektu pertsonala da, baina eurek ere tokia dute. Zenbaterainokoa da euren eragina?

“Biharko kontzertuan, arlo musikolari dagokionez, diskoan oinarrituko gara, baina irekia izango da era berean”

Gai berdina beste musikari batzuekin jotzean ezberdin entzuten da. Bakoitzak bere ukitua eskaintzen du. Oinarritik abiatuta, musikari bakoitzak bere ñabardurak eta ukituak emateko askatasuna du. Alde horretatik, jazza oso interesgarria da, oinarri edo egitura hori errespetatuz gero, hortik aurrera musikari bakoitzak bere ikuspuntu pertsonala jarri ahal diolako piezari. Disko bera bateria eta kontrabaxu batekin edo beste batekin grabatuz gero, ezberdin entzungo litzateke. Hori da jazzak eta inprobisazioak duen aberastasunetako bat. Aritzak eta Javierrek lan oso polita eta sendoa egin dute.

Diskoaren informazio
gehiago



Diskoaren grabaketa nolako izan da?

Grabaketa oso erraza izan da. Bi egunetan Josue Pascual deituriko teknikari batekin grabatu genuen. Jazzean oso aditua da eta esperientzia handia duen teknikaria da. Arlo teknikoari dagokionez, oso grabaketa erraza izan da.

Gaztelupeko Hotsak ekoiztetxearen Errebal Jazz ziguarekin argitaratu duzu diskoa. Garrantzitsua da jazzaren aldeko apustua egiten duen zigilua edukitzea etxe alboan?

Lehenengo diskoa, 'The new jazz voices esemble', erekin grabatu nuen. Bigarrena, 'Walk', autoekoizketa izan zen. Eta orain, berriz ere, Gaztelupeko Hotsakek ekoiztu eta argitaratu du diskoa. Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta oso erraz jarri dizkirate gauzak. Oso harreman estua eta erraza izan da. Orain dela 40 urte ezinezkoa zen imajinatzea Eibarren eta inguruan jazz musikariak egotea, eta gero eta gehiago gaude. Eta bestalde, musika hau lantzen duen disketxea dugu. Zorte hori dugu eta proiektu sendoa da, gero eta jazz musikari eta disko gehiago ateratzen ari direlako. Oso trinkotuta dagoen errealitatea da eta oso proiektu polita. Seguru asko aurrera egingo du eta hazi egingo da. Batek daki nora helduko den.

Aitzindaria zara hemengo jazz munduan. Hasi zinenean ez zen egongo aipatu duzun ekosistemarik. Nola gogoratzen dituzu hastapenak?

Maitasun handiarekin gogoratzen ditut, eta baita arduragabetasun eta ausardia puntu batekin ere. Batzuetan bizitzan gauzak horrela egin behar dituzu, bestela ez duzu sekula arrankatzen. Poliki-poliki pausoak ematen hasten zara eta pauso bakoitzak erreferentzia ematen dizu gero beste pauso bat emateko, eta horrela. Musika maratoia da, oso karrera luzea. Nik ikuspuntu hori eman diot nire bizitza musikari. Maratoia izanik, asko ez nekatzen saiatzen naiz. Irakaslea naiz eta jardunaldi osoan egin izan dut lan beti. Orduan, sobratzen zaidan energia eta denborarekin, batzuetan energia eta denbora hori ez da asko, baina gauzak eskaintzen saiatzen naiz eta ahal dudana neurrian jarraitu egingo



dut. Pauso txikietatik asko ikasten da: hurrengo pausoa nola irudikatu, zein gauza on eta ez hain on egin dituzun... Musika metodo zientifikoa bezalakoa da: froga eta errorea. Eta inprobisazioan are gehiago. Inprobisazioa asko landu behar dugu, baina ez dakigu egun bakoitzean zer egingo dugun eta horretarako prestatu behar gara. Hori da gure eguneroko erronka teknikoa.

Diskoa zuzenean aurkeztuko duzue Eibarren. Zuretzat berezia izango da etxean jotzea?

Oso berezia da. Emozio puntu garrantzitsua du. Era berean, Coliseo antzokian oso gustora jotzen dut, oso baldintza onetan jotzen dugulako. Bertako langileak punta-puntakoak dira eta beti tratatu gaituzte maitasun handiarekin. Arlo musikari dagokionez, diskoan oinarrituko gara, baina irekia izango da era berean. Momentu batzuetan inprobisaziora irekiko gara eta beste batzuetan oinarritu bueltatuko gara. Kontzertu guztietan jokatzen dugu antzera. Hau da, oinarritzko egitura ezartzen dugu, baina gero solista batek inprobisatzen duenean taldeak jarraitzen dio eta jarraipen horrek egoera berrietara eramaten gaitu. Hori da interesgarria. Hortik nora arte heldu ahal gara? Zer aterako dugu berria? Momentuan momentukoa? Hori da inprobisazioaren magia.



JESUS GUTIERREZ

Auzoetako nortasuna galtzen goaz?

Orain kaleratu berri dute bertoko komunikabideetan Amaña izango dela hiru eguneko jaiak antolatuko dituen Eibarko auzo bakarra. Hori guztia San Kristobalگو jaien desagerpenaren ondoren, eta Urkin, zeozer antolatzeکو asmorik izanda ere, aurtan asteburu bateکو ohiko jai-egitaraurik ez dela izango jakinda. Buruari pixka bat eraginda, gogoratuko genuke beste sasoi batzuetan Jardinetak, Legarrek, Ipuruak edo Azitainek halakoak antolatzen zituztela. Bitartean, landa-auzoetan eusten jarraitzen zaie, Aginagan edo Santakurutzen kasurako, eta, jakina, Arraten.

Horiek guztiak Eibarko auzoetako nortasunaren galeraren adierazgarri dira? Bertako biztanleek aspaldi ematen zen auzo horietakoak izatearen harrotasun puntu hori galdu dute? Edo, besterik gabe, jaiak antolatzeak lan asko eskatzen duelako eta garestia suertatzen delako da? Horri gehituz inplikaturako diren boluntarioen faltaren eraginez? Egia da aisialdia eta jaiak bizitzeko guneak eta erak aldatu direla. Gazteek, orokorrean, ez dute asteburuetako euren aisialdia euren auzoetan gozatzen. Herriaren erdialdean, eta gero eta espazio estuagoan (Egogain, Untzaga, Txaltxazelai, T. Etxebarria, Calbeton eta gutxi gehiago) biltzen da jendea. Esan genezake bostehun metro linealetan, Egogain eta anbulatorioko parkea lotzen dituen lerroan, batzen dela Eibarko aisialdia. Zabaleran berrehun metro emango genioke, Txaltxazelai bertan sartzen badugu.

Ipurua, Amaña, Urkizu, Urki eta beste inguru batzuk euren “giroari” eusten jarraitzen diote, baina gazterik ez dago apenas. Horri gehitu behar zaio euretako askok beste herri batzuetara ere irtetzen direla, “martxa”-ren bila. Horregatik da eredugarria euren auzoetan lanean jarraitzen duten guztien lan hori, baikortasuna dakarkigulako eibartarroi, nortasun indartsu bati eusteko ahalmenarekin jarraitzekotik aparte.

“Esan genezake bostehun metro linealetan, Egogain eta anbulatorioko parkea lotzen dituen lerroan, batzen dela Eibarko aisialdia”

Espainiako Kopako onena 53. ediziora heldu da

Txirrindularitza afizionatuaren mailako estatuko lasterketa garrantzitsuenak 26 talde eta 182 txirrindulari hartuko ditu domeka goizean gurean. Azitaindik abiatu eta Torbio Etxebarria kalean amaituko den 163 kilometroko proban profesioaletara jauzia egiteko asmoa izango dute garaipenaren bila borrokan jardungo dutenek.

Elite eta 23 urtetik azpiko mailako lasterketa horretan Espainiako Kopan parte hartzen duten 21 taldeak izango dira, gonbidatutako beste bostekin batera, tartean gure herriko Klub Deportiboko ordezkarria.

Lasterketak sei mendate izango ditu: 3. mailako Itziar, Meagas, Areitio eta San Miguel, 2. mailako Elgeta eta 1. mailako Ixua. Horrek ibilbidea bi zatitan banatu dezake, probaren aurkezpenean adierazi zuten bezala: “Lehenengoko erdian probak dituen gorabeherak azkar joatea ekarriko du, eta bigarrenaren eskalatzaileek izango dute zeresana,



Apirilaren 23an aurkeztu zuten lasterketa Eibarko udaletxeko Pleno Aretoan.

batez ere Ixua gainean”. Exigentzia horri hobeto erantzuten diona izango da lehenengoa T. Etxebarriako helmugako marra zapaltzen”. Goi-

zeko 09:00etatik eguerdiko 13:00ak arte ikuskizun bikainarekin gozatze-ko aukera izango dugun itxaropena inork ez digu kenduko.

Valenciaga Memorialaren palmaresean izen handiak azaltzen diren bezala (Oscar Freire bezalako munduko txapelduna tarteko), iazko podiuma osatu zuten hirurek ere profesioaletan dihardute denboraldi honetan: David Dominguez irabazleak Portugalgo Aviludo-Louletano taldearekin fitxatu du, Iker Mintegi bigarrenak Euskaltelekin hartu du parte Itzulian, eta Jorge Gutierrez hirugarrena Kern Pharma taldean dago.



Eibarko Txirrindulari Elkarteak jakin izan du azken urteotako zailtasunei aurre egiten.

maiatzak 5 (EIBAR-EIBAR)



GARAILEA



MENDIA



23 URTEKAZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



TARTEKO HELMUGAK



SPRINT BEREZIAK



LEHEN EUSKALDUNA



LEHEN GIPUZKOARRA



TALDEKAKO SAILKAPENA



Udaberri Proba (Juniorrak)



CCE Saria (Kadetek)

VI. EIBARKO HIRIA
SARI NAGUSIA
(UCI PRO)

San Juan Saria (Juniorrak)

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- SD Eibar Fundazioa
- Laurel & Hardy Pub
- Izadi Loradenda
- Oria Sport Wear, S.L.
- Beltran Igozalluak
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Pneumax
- Soraluze S. Coop.
- Ruibal

- Nelnor
- Manufacturas GES
- Hotel Castillo
- Vitaldent
- Gorla Auto Group
- TAES
- Urkotronik
- Dario Autobusak
- Alkideba
- Ongi Etorri Taberna
- Ixua Hotela

- MTE
- Berkoa
- Oberena Harategia
- Arkupe Gastro Pub
- Guridi taberna
- S.C.R.G. Kamarroak
- Kalaka Taberna
- Buenos Aires Taberna
- As Burgas Casa de Galicia
- Casa Cantabria

Probaren aurkezpena

Aurreko martitzenean udaletxean Arritxu Iribar kazetariak gidatutako aurkezpenean, probak afizionatuen mailan duen pisuaren inguruan jardun zuten mahaia osatu zutenek. Bertan izan ziren, erakundeetako ordezkariekin batera, Beñat Urain lasterketaren zuzendaria eta domekan errepidean izango diren Beñat Garaiar eta Unax Errasti txirrindulariak ere.

Eibarko Txirrindulari Elkar-teak antolatzen duen lasterketa hau aurtengo egutegiaren hirugarrena izango da, otsailaren 25ean jokaturako junior mailako 46. Uda-berri Sariaren eta apirilaren 14an egin zen kadete mailako 7. CCE Sari Nagusiaren ondoren. Hilabe-



Getariako arratoiak gustora hartzen du Valenciaga Memorialarekin duen hitzordua.

te honetan bertan, hemendik hiru astera, 6. Emakumezko Eibarko Hiria Sari Nagusia jokatu da, profesioaletako Women Elite 1.

Pro mailakoa; eta ekainaren 16an hor izango da junior mailako San Juan Sari Nagusia bere 88. edizioan (ez da atzoko kontua, beraz).

Eibarko taldeak gogotsu ekingo dio

Galder Lasuen da Eibar Txirrindulari Taldearen zuzendaria. Badaramatza hamalau urteren bueltan bertan, “erdiak Juanjo Sebastian aurreko zuzendariari laguntzen”. Hori bai, “betidanik” izan du txirrindularitzarekiko zaletasuna; hori dela-eta, hona etorri aurretik “Ermuko jubenilekin” jardun zuen lanean.



Klub Deportiboko gure herriko txirrindulari taldeak 17 gazte ditu denboraldi honetan, elite eta 23 urtetik azpikoez osatuta. “Gipuzkoarrak dira guztiak, bat kenduta; hori berori ere muga-mugakoa, nafarra baina Berakoa. Gehienak 19 eta 23 urte bitartekoak dira, 25koa eta 27koa badiren arren”. Euretako bi dira Eibarkoak, Ander Gutierrez eta Iker Goikoetxea: “Biak dira elite mailakoak. Iker duatloian eta triatloian ere badabil, eta Ander skatean ere ari da”.

Taldeko guztiekin gustora dihardu lanean Lasuenek, “beti ere euren ibilbidean urrats bat gehiago eskaintzeko asmoz. Formakuntzan saiatzen gara batez ere, une honetan denak ikasten dihardutelako. Hemendik bizitzea zaila da, baina pertsonak formatzeko aukera horretaz baliatzea aberatsa da guztiondako”.

Valenciaga Memorialerako taldea -erorketek besterik ez badute esaten behintzat- buruan du Eibar Txirrindulari Taldearen zuzendariak: Haritz Sein, Unax Errasti, Gorka Arruti, Jon Morillo, Xabat Manso eta Mikel Irigoienek osatuko dute zazpikoa, pistan ere bere maila baduen Telmo Senperenarekin. Lehenengo biak izango ditu taldeburu, orain arte errepideak euren eman dielako proiektzio gehien, lortutako emaitzek erakusten duten arabera.

Sein aurreko asteburuan jokaturako Bidasoako Itzulian ere ondo ibili zen, “nahiz eta San Martzialetik jaisten izandako erorketak Legazpin ez dion lagako parte hartzen”, diosku Galderrek Maiatzaren 1eko lasterketa horren bezperan. Hala ere, itxaropentsu da domekako Valenciagari begira, “ordurako onik izango delakoan”. Bidasoako bigarren egunean Jaizkibelen geratu bazen



Lasterketaren perfila: Zarautzeraino joango dira eta, ondoren, Maltzagatik Bergarara.

AURREIKUSITAKO ORDUTEGIA

IRTEEPA	Eibar-Azain	09:10
16	kir Deba (sprint)	09:25
24	kir Iizian (3. maila)	09:35
38	kir Meagas (3. maila)	10:15
57	kir Deba (sprint)	10:50
100	kir Elgeta (2. maila)	11:15
125	kir Areño (3. maila)	12:10
131	kir Eibar (1. lekoko)	12:15
136	kir Ixua (1. maila)	12:35
145	kir Etxebarria (1. lekoko)	12:45
151	kir Sar Miguel (3. maila)	13:00
HE. NUGA	T. Etxebarria	13:15



Klub Deportiboko taldeko txirrindulari bat sinatzen lasterketa bat hasi aurretik.

ere, “lasterketan hor aurrean ikusi gaituzte”. Unax Errastirekin ere itxaropentsu da zuzendaria: “Lehen urtekoa izanda ere, oso ondo dator, eta gehiago eman dezake”.

Domekako lasterketari begira, “taldea ikusi dadila” da bere asmoetako bat. Jakina, probako talde apalenetakoa da Klub Deportibokoa, Espainiako Koparako baliagarria izanda bertan parte hartzeko aukera ere gonbidapenez etorri zaiolako Eibarkoari. Hala ere, euren egutegian beti dago presente bertan parte hartu eta zeezer egiteko asmo hori: “Guretzat proba gogokoenetako bat da, orain egin dugun Bidasoako Itzulia-

rekin eta tartean dugun maiatzaren Ieko Legazpiko Klasikoarekin. Aipatutako horiei Nafarroako Itzulia eta uztailan egingo dugun Zamorako Itzulia ere gehituko nizkieke. Eta, jakina, Lehendakari eta Euskaldun Sarietarako balio duten guztiak”.

Arratera Igoera

Aurtengo egutegian, gainera, ez da faltako Klub Deportiboaren mendeurrenari erreferentzia egingo dion proba berezi bat. Deporrek urte guztirako antolatutako ekitaldien barruan, uztailearen 13an Arratera Igoera jokatu da: Lasterketak 140 kilometro izango ditu, T. Etxebarria kalean hasi eta Arraten amaituko dena”.

Txirrindularitzaren harrobia zelan ikusten duen galdetuta, Lasue nek batez ere “gazteen profesionalizazioari” erreparatzen dio: “Gero eta kirol gehiago dugu inguruan, eta horrek gazteak sakabanatzea dakar; ondorioz, txirrindulari gutxiago dugu inguruan. Hortik aparte, kontuan izanda 14-15 urterekin batzuk euren prestatzaileekin hasten direla, ez dira gutxi jubeniletatik profesionaletara jauzia egiten dutenak... Ez dakit, gauza onik ez igual”.

Baina goi mailako txirrindularitzan eman diren aldaketek, kontrara, lasterketak gustagarriago bihurtu



Eibarko taldeko ordezkarri bat aurreko asteburuko Bidasoako Itzulian.

dituztelakoan dago: “Orain askoz ausartagoak dira. Orain dela hamar urte ekipo batek proba bat gutzit kontrolatuta eduki zezakeen bezala, gaur ez da halakorik gehienetan. Badira 60 kilometroren falta aurrera jotzen duten ausartak, eta arriskuak hartzeko prest daudenak... Horrek bizitza ematen dio txirrindularitzari, lehiakortasuna”.

“Gutxitan jakiten da futbolariek benetan zer pentsatzen edo sentitzen duten”

ZUHAITZ GURRUTXAGA • Futbolaria ohia eta umoregilea



19 urterekin Realarekin debuta egin zuen, goia jo zuen aurrelari handienei markaketa gogoangarriak eginez, futbolaren distirak inguratzen zuen bere bitzta, baina bere barrenean gauzak beste modu batekoak ziren. Antsietatea, depresioa, Nahasmendu Obsesibo-Konpultsiboa (NOK, gazteleraz TOC)... Ez ziren bidelagun atseginak izan Gurrutxagarentzat, baina orain, urteak pasata, umorez kontatzen ditu sasoi hartan bizitakoak.

Futbol profesionala laga ondoren, abeslari, telebistako aurkezle, aktore eta bakarlari bezala ikusi dugu elgoibartarra. Umorea lagun, lehen pertsona bizitako gai sakonak azaleratu ditu, besteak beste, eta 2019an ‘FutbolisTOC’ bakarrizketa saioa aurkeztu zuen. Orain Eibarren ikusteko aukera izango dugu, gaur bertan, 20:00etan, Coliseo antzokian.

Urteak daramatzazu ‘FutbolisTOC’ bakarrizketan futbolaria bezala sentitzen zenuena azaltzen, baina hasieran nola sentitu zinen bizipen horiek publiko aurrean azaleratzerakoan?

Niretzat deskubrimendua izan zen. Hasieran, material narratibo ona edo interesgarria zela iruditzen zitzaidalako atera nuen publikora. Izan ere, futbolaz asko hitz egiten da egunero, aldi oro ikusten dugu telebistan, irrastian eta toki guztietan, baina gutxitan jakiten da futbolariek benetan zer pentsatzen edo sentitzen duten. Normalean oso mundu hermetikoa da eta futbolariek nahiago dute, eta nik ere nahiago nuen nire sasoiari, ezer ez kontatzea, hurrengo egunean egunkarietako titularretan agertzeko arriskua dagoelako. Horregatik, askotan esaten dira hain esaldi topikoak,

bide arruntetik ez ateratzeko eta istiluetan ez sartzeko. Orduan, hori jakinda, material narratibo ona iruditu zitzaidan, baina gero ikusi nuen niretzat ere sendagarria edo onuragarria izan zela sasoi hartako bizipen ez hain onak umorez kontatzea, pixkanaka bakeak egin nituelako nire buruarekin eta futbolarekin.

Gauza horiek umorez kontatzeak lagundu egiten du?

Bai, guztiz. Modu askotara kontatu dezakezu, baina umorez kontatzerakoan eta neure buruaz barre egiterakoan, konturatzen nintzen niri ere bakeak egiten laguntzen zidala. Izan ere, bere garaian sufritu egin nuen debutean kaleratua izanagatik, penalti bat huts egiteagatik edo horrelako mila gauzagatik, eta soilik horretaz barre egitea lortu nuenenean desagertu zen sufrimendu hori, edo gutxitu behintzat. Norberaren arazoak edo porrotak umorez kontatzeak asko laguntzen du gauzak desdramatizatzeke eta erlatibizatzeke.

Publikoak ere, horrelako kontakizun sakonak umorez jasotzen baditu, beste modu batean hartzen ditu, ezta?

Bai, hori da. Publikoari barrea eragiteaz gain nola-baiteko mezu bat igortzen badiozu, ekintzak balio bikoitza hartzen du, interesgarria egiten zaiolako eta barre egiten duelako. Hori borobila dela iruditzen zait (lortuz gero, noski).



Realean hainbat urtetan jokatu zuen Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak

Bakarrizketan kontaktzen dituzun bizipenak nola bizi izan zenituen sasoi hartan? Noizbait azaleratuko zenituela pentsatu zenuen?

22 edo 23 urterekin, Realeko jokalaria nintzenean eta gauza hauek guztiak gertatzen hasi zitzaizkidanean, ez nuen pentsatu ere egiten hori kontagarria izan zitekeenik, niretzat oso lotsagarria zelako. Ezkutatu egiten nuen. Beraz, ez nuen uste inori kontaktuko nionik, are gutxiago eszenatoki gainean. Egia da gero, urteak aurrera joan ahala, eszenatokien mundura arrimatzen hasi nintzenean, zerbait bazegoela ikusi nuela. Bakarrizketekin hasi nintzenean futboleko anekdotak soilik kontaktzen nituen, ez nuen buru osasunaz hitz egiten, baina bai pentsatzen nuen material narratibo ona izan zitekeela eta, gainera, onuragarria niretzat. Momentu egokia aurkitu behar nuen eta orain dela pare bat urte iruditu zitzaidan horretarako ueña iritsi zela.

3-4 urte daramatzazu 'FutbolisTOC' ikuskizunarekin. Nolakoa izan da urte hauetako bidea?

Nahiko desastrea naiz eta hau egiteaz gain, antzerkian ere banabil ekoiztetxe batekin. Euren birak oso pentsatuak daude: noiz hasi, noiz amaitu, eta abar.

“Osasungarria izan zen sasoi hartako bizipenak umorez kontatzea, bakeak egin nituelako nire buruarekin eta futbolarekin”

Bakarrizketa nik eramaten dudanez, nahiko desastre da bira moduan. Orain dela lau urte hasi nintzen, bost hilabete ezer egin gabe egoten naiz, gero bueltatu eta hiru segidan egiten ditut... Ikuskizuna ikusi nahi duen jendea nahiko erotuta daukat, noiz ikusi dezaketzen galdetzen didatelako eta neronek ere ez dakit. Lau urte pasa dira, baina hutsune oso handiekin. Bestalde, askotan pentsatzen dut lau urte daramatzadala gauza bera kontaktzen, baina zenbat jendeak oraindik ez duen ikusi, eta ikusi nahi duen ere pentsatu dut. Orain, 'Subcampeones' liburua argitaratu ondoren, piztaldia sortu da jendeak bakarrizketa ikusi nahi izateko, eta pentsatzen dut oraindik badagoela bakarrizketa ikusi nahi duen jendea eta herri asko tara ez naizela joan.

Beraz, pentsatzen dut pixka batean jarraituko dudala, esan bezala, bira oso desordenatu batean, noski.

Musikaria, bakarrizketalaria eta aktorea zara, baina oraindik ere futbolista ohi edo futbolistatzat duzu zure burua?

Zer naizen galdetzen didatenean, futbolari ohia naizela esanez sentitzen naiz erosoan. Beste guztia nire ofizioa da duela hamar urtetik, zorte handia izan dut, baina jende askori gertatzen zaion moduan, iruzur baino, lan-intrusismoa egiten dudala sentitzen dut. Antzezlea, aurkezlea edo bakarrizketalaria naizela esatea zaila egiten zait, kulturaren mundu horretara paraxutista bat bezala erori naizela iruditzen zaidalako. Futbolari ohi bezala sentitzen naiz erosoan, futbolari profesional bezala 15 urte eta futboleant 20 urtetik gora pasa nituelako, eta nire buruari izen hori jarrita inor engainatzen ez dudala sentitzen dut. Beste etiketekin, ostera, beldurra eta lotsa sentitzen dut.

Ander Izagirrekin oihartzun handia izan duen 'Subcampeones' liburua idatzi duzu. Nola bizi izan duzu liburuarekin sortu den mugimendua?

Pozgarria izan da. 10 urte egin ditut telebistan, antzerkian eta abar Euskal Herrian barna, eta demaseko zortea izan dut Euskal Herri osoa ezagutzeko aukera izan dudalako, baita oraindik ere. Liburu honekin, gauzak kontatzeaz gain, Euskal Herritik irtetea bilatzen nuen. Ez aspirazio ekonomikorik nuelako (liburu bat idaztea ez da batere errentagarria, punta-puntakoa ez bazara behintzat), baizik eta toki eta jende berriak ezagutzeko. Liburu honi esker Ander eta biok bidaiatu egin dugu eta Madrilan, Bartzelonan, Salamancan, Santanderren eta beste hainbat tokitan egon gara, eta oso bolada polita dihardu izaten. Gauza berriak ezagutzen ari naiz oso bide berri batetik, literaturatik. Lehen esan badizut eszenatoki munduan paraxutista bezala erori naizela, imajinatu literaturan ze paraxutista naizen. Sei hilabete pasa dira liburua argitaratu genuenetik eta oso oihartzun polita izan du.



Labur-labur, zer kontatzen da liburuan?

Futbola beste mila gauza kontatzeko aitzakia da. Haurtzarotik hasitako bidea da, autobiografikoa. Futbolak indar asko du eta, batez ere, futbolaren inguruan bizi izandakoak eta sentitu nituenak. Bakarrizketan bezala, hemen ere futbolari bati entzuten ez zaizkion gauzak kontatzen ditugu. Ez zaizkio entzuten ez sentitzen ez dituelako, baizik eta ez dituelako kontatu nahi, normala den bezala. Oso gauza polita izaten ari da, liburua irakurri ondoren futbolari eta futbolari ohi askok idatzi didatelako oso identifikatuta sentitzen direla esanez, eta oraindik futbolariak diren zenbait irakurketa lagungarria izaten ari zaiela esan didate. Beraz, imajinatu niretzat zeinen pozgarria den.

Zure sasoiarekin alderatuz, buru osasunarekin zerkusua duten gauzak aldatu egin dira futbolaren munduan?

Egoera hori hobetu egin da, argi eta garbi. Buru osasunaz hitz egiten da eta lehen hitz horiek zer ziren ere ez genekien. Adibide garbiena lehen pertsona bizi izan dut. Izan ere, LaLigaren bitartez proba pilotua egin dugu aurten eta hurrengo urtean jarraituko dugu, eta bertan Alaves eta Leganes taldeetako jokalariekin egon naiz izan nituen arazoez, buru osasunaz, laguntza nola eskatzeaz eta horrelakoetaz hitz egiten.



Aurtengo edizioan Elgoibarko ikasleek ere hartu dute parte egitasmoan.

Euskararen Baloia lehiaketa azkenengo txanpan sartu da

Eibarko eta inguruko herrietako ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko SD Eibar Fundazioak martxan jarritako egitasmoa da Euskararen Baloia. Aurtengo ediziora arte, Eibarko eta Ermuko ikastetxeetako haurrek hartu izan dute parte, eta aurten Elgoibarko ikasleek ere egin dute bat ekimenarekin. Orain lehiaketaren azken txanpan sartu dira eta datorren astean banatuko dituzte sariak.

Euskararen Baloiak Ipurua futbol zelaiko obretan aurkitutako baloi baten istorioa kontatzen du. "1899an auzoko bizilagunek Andres Gorosabel auzokide eta baloiegileari eskatu zioten baloi hori, eta honek mandatua onartu zuen baldintza batekin: Eibarko haurrek hura euskaraz erabili behar zuten. Gorosabelen lekukoa hartuta, klubeko hainbat kidek, besteak beste, gizonetzkoen eta emakumezkoen lehen taldeko jokalarik eta entrenatzaileek, baloi horren historia bikaina kontatzen

'Euskara eta kirola' gaiari buruzko proiektuak aurkeztu behar izan dituzte parte-hartzaileek

diete ikasleei", diote SD Eibar Fundazioetik.

Aurtengo edizioan, berritasun bezala, lehiaketa antolatu dute ikastetxeen artean. Horrela, ikastetxe bakoitzak 'Euskara eta kirola' gaiari buruzko proiektu bat aurkeztu behar izan du edozein modalitate artistiko erabilita (antzerkia, abestia, dantza, ipuin kontaketa...), gehienez ere bost minutukoa.

Guztira hamar ikastetxek hartu dute parte lehiaketan eta aurkeztutako hamar proiektutatik bost finalista aukeratu dituzte dagoeneko. Epaimahaia aste honetan bildu da eta datorren astean emango du jakitera zeintzuk diren bi sari nagusiak eramango dituztenak. Izan ere, hauek dira sariak: 2. sariari dagokionez, emakumezko jokalariek sinatutako hamar baloi eta gizonetzkoek sinatutako beste hamar eramango dituzte; eta 1. saria lortzen dutenek lehen mailako jokalarien autobusean Atxabalpeko entrenamendura bisita egiteko aukera izango dute, Pantxika maskotarekin eta gizonetzko jokalariekin argazkia egiteaz gain.

Epaimahaikideei dagokienez, bertan izango dira Eibar KE-ren ordezkariak, Emun aholkularitza zerbitzua, Eibarren Akebai eta ... eta kitto! Euskara Elkarteak.

410 ikasleren bisita

Azken urteetan egin den bezala, aurten ere ekimenean parte hartu duten ikasleek Ipurua futbol zelaia bisitatu eta Euskararen Baloia kondaira ezagutzeko aukera izan dute. Horrela, aurten 410 ume gerturatu dira Ipuruara.

Behin kondaira ezagututa, ikastetxe bakoitzak Euskararen Baloia ale bat jaso du eta, horrez gain, beste opari esanguratsu bat jaso dute. Izan ere, ume guztiak Ipuruara gonbidatu dituzte emakumezkoen eta gizonetzkoen futbol partidu bana ikustera.



Gurutzeak kontatzeko aukera polita... asteburuko Santa Kurutz jaietan. RAMON BEITIA

Urbateko waterpolistak denboraldia osatu dute Orbeatik kanpo

Urbat-Urko tronik waterpolo klubeko lehen taldeak mailari eutsi dio 2. Maila Nazionalean egindako debutean. Hori bai, oso esperientzia desberdina bizi ondoren: Orbeako igerilekuak maila horrek eskatzen dituen baldintzak betetzen ez duenez, Davide Cerchiren taldeak “etxeko” partidu guztiak Donostia-ko Paco Yoldi igerilekuan jokatu behar izan ditu. Baina, Eibarren jokatu ez arren, taldeak zein zale-tuek “paper ona” egin dutela diote Urbatetik. Euren antolakuntzari esker, “partidu bakoitzean autobus bat eraman dugu haraino eta, horri Easo, Donostia eta Urgara bertako klubetako zaleak ere gehitu behar zaizkie”, taldeak jaso izan ditu zaileen animoak.



2. Nazional Maila horretan etxean jokaturako 11 partiduetako bost irabazi ditu, beste bost galdu eta bakarra berdindu. Urbatek 145 gol sartu ditu guztira eta 127 jaso ditu. Mila lagun inguru izan dira partiduak ikusten, eta horietatik erdia pasatxo Eibartik joandakoak.

Urbatetik Alain Moya eta René Peraltaren lana ere azpimarratu nahi izan dute: “Moya anfitrioi bikaina izan da, speaker, dj, delegatu, muntatzaile... Eta, Peralta jokalaria estatubatuarra agutzerakoan, hiru hilabetetan mailari eusteko gurekin egindako lana eskertu nahi diogu”.



Ipuruakoek erregin jokatu zuten etxean

Aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokaturako Gipuzkoako Banakako txapelketan, Ipurua Klubeko ordezkariak urrezkoa eskuratu zuten banakako zein boskoteen arloan. Estatu mailan federatu gisa diharduten gimnastak izan ziren jardunaldi horretan, eta Nahia eta Haizeder Arguiz ahizpek osatutako bikoteak notarik altuena lortu zuen hiru aparatuek gehituta: Nahia onena izan zen mazoekin, eta Haizederrek urrezkoa irabazi zuen

xingolarekin eta zilarra pilotarekin. Lehiaketaren bigarren zatian, boskoteen lanak ere puntuatu zituzten kontrol gisa. Ipuruako senior mailako taldea lehen tokian sailkatu zen, eta Oinarrizko Jubenil taldea bigarrena izan zen, Tolosakoaren atzetik. Ipuruako bi talde horiek zapatuan Tolosako klubak antolatutako torneoan hartuko dute parte. Domekan, berriz, Gipuzkoako Amateur Txapelketa egingo da Tolosan bertan.

Eibar Igerixanekoak Gipuzkoako Kopan

Eibar Igerixan taldeko Paula Calvo igerilariak nagusitasun handia erakutsi zuen beste behin eta asteburuan Irunen jokaturako Taldeko Gipuzkoako Kopan berak parte hartu zituen lau probak poltsikoratu zituen: libre erako 100, 200, 400

eta 800 metrokoetan lehena izan zen amaitzen. Asier Gomez taldekidea, bestalde, laugarren izan zen libre erako 1.500 metroko proban. Tolosak Bidasoaren aurretik irabazitako Kopan, Eibar Igerixan 11. postuan sailkatu zen.



Baietz 312 mendi erronka aurrera doa



Deporreko Mendeurrena ospatzeko, mendiko taldeak "Baietz 312 mendi" erronka sortu du; diotenez, klubaren mendeurrena ospatzeaz gain, "mendizaleen komunitatea indartu eta zabaldu nahi dugulako". Egin duten 312 mendiko zerrenda urtarrilaren 29an Urko argiztatzeko parte hartu zuen lagun kopurutik hartu dute. Zerrenda horretan "guztiondako" mendiak daude: errazak, zailak, ederrak, ez hain ederrak, gertu daudenak eta urrutiago kokatutakoak. Hori guztia egiteko, mendeurreneko urtea hartuko duen epea jarri dute igoyerak egiteko. Informazio gehigorako: <https://312.deporeibar.com/>

Webguneko mendi zerrendan 312 mendi sartu dituzte: "Denetik daukagu: Eibar inguruko mendiak, Euskal Herriko mendi esanguratsuak, Pirinioetako 3000koak, Europako Mendietako eta Penintsulako hainbat gailur... Baina, horietakoren batetik aparte, beste mendi esanguratsuren bat igo baduzu edo igo nahi baduzu, idatziguzu eta zerrendan sartuko dugu!". Aldi berean, "mendi bat igo aurretik begiratu ea erreserbatuta dagoen, eta hala bada, aukeratu beste bat!" diote.

Igo aurretik izena emateko eskatzen dute, eta jakizu mendiak 30 eguneko aurrerrapenarekin

bakarrik erreserbatu ditzakezula: "Klubera etorri eta mendi batera igo behar duzula-eta banderataxo eskatu barran". Behin mendi gailurrean, banderataxo eskuan edo bistan dela atera behar da argazkia, "beti ere pertsonaren bat, banderataxo eta mendi-gailurra identifikatzeko zerbait (buzoia, bistak, izena, ...) dela". Aldi berean, banderina bertan ez lagatzea eskatzen dute, "hondakinak sortu ditzake eta".

Mendia igo ondoren, klubaren webguneko "Nire Igoerak" dioen atalera igo daitezke argazkiak edo, eposta bidez, 312@deporeibar.com helbidera bidali daitezke. Argazkiak klubaren Instagram kontuan ere argitaratuko dituzte.



312 mendien zerrendan denetarik aurki ditzakete erronkan parte hartu nahi dutenek.

Zapatu honetan Alluitzeko buzoia izango dute zain mendizaleek

Hurrengo zapatuan Deporrekok Anboto mendi mitikoa igoko dute Klasikoen arloan

Aste honen hasieran, 73 mendi zeuden dagoeneko eginda, 41 zain eta 198 egin gabe. Aurretik ere antzerako zeozer burutu zuen Deporrekoko mendi taldeak: 1999an izan zen, klubaren 75. urteurrena ospatzeko. Orduko hartan Pirinioetako 3.000 metrotik gorako mendi guztiak igo zituzten, 212 guztira, "UIAAk 1995ean argitaratu zuen zerrenda oinarri hartuta".

Euskal Federazioarekin Urkon

Euskal Mendizale Federazioaren mendeurrenaren barruko "100 urte, 100 mendi" ekintzaren barruan zegoen Urkorako igoera egiteko, 50 mendizale inguru elkartu ziren Urkizuko iturrian ibilbidea hasteko. Laster euria hasi zuen eta "baita ur dexente bota ere momentu batean". "Eskerrak txangoaren bigarren zatian eguzkia agertu zen", horrek beste kolore argitsuekin ibiltzeko aukera eskaini baitzuen Aginaga inguruetan Urkora heldu aurretik. Antolatu zen bidea ez zen betikoa izan, "mendizale gehienentzat oso ustekabe atsegina bihurtuz".



Hasierako euriak giro lasaiagoari egin zion tarte Urkora igo zutenentzako.

Gazteenak Xoxoten

Xoxotera igo zuten apirilaren 21ean Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekoek antolatutako umeen zazpigarren mendi irteeran. "Eguraldi paregabearekin" guztira 41 haurrez osatutako taldea bildu zen, hainbat gurasoren laguntzaz,



Odol gaztekoak Xoxote gainean.

10 kilometroko distantzia betetzeko. Aittolako aparkalekutik abiatu, Xoxote gaina zapaldu, aterpearen bueltan hamaiketako egin eta Azpeitiara jaitsi ziren, ibilaldiko paisiaz gozatuz.

Klasikoen bidetik

Mendeurrenaren barruko Klasikoen saileko hurrengo irteeran Alluitzen Deporrek kokatutako buzoia bisitatuko dute. Arrazolatik Mañariara joango den ibilbidean, 1.034ko metroko Alluitz eta 941eko Untzillatx zapalduko dituzte. Hori bai, 14 kilometro eta erdi izango dituen zeharkaldian desnibel handia gainditu beharko dute, 1.715 metrokoa hain zuzen. Goizeko 08:00etan irten eta arratsaldeko 17:00etan bueltatuko dira, gutxi gorabehera.

Hurrengo irteerak beste Klasiko bat dauka ardatz: Anboto mendi mitikoa. Udalatik hasi, Besaidetik pasa eta, Anbotora igo eta gero, Urkiolan amaituko da. Maiatzaren 11ko irteera horrek 17 km-ko distantzia du eta desnibelak honakoak dira: 1.125 metro igo eta 880 jaisteko.



Ederki ospatu zuten Dantzaren Nazioarteko Eguna

Apirilaren 29an ospatzen den Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, Eibarko dantza talde eta eskolek era guztietako dantzekin bete zuten herria aurreko barixakuan. Kezka, Koa, Biraka, Untzagako Jubilatuen Etxea, Beheko Tokia, Ballet Eibarres, Kaxa, Neledantza, flamenko taldea, Pagatxa eta Kubako saltsa egiten duen taldea, horiek guztiak bildu zituen ekimenak eta, egunari amaiera biribila emateko, Laket taldeak erromeria eskaini zuen Untzagan. Eibarko Kulturak lagatako irudiekin egin dugun bideoa gure webgunean (www.etakitto.eus) eta YouTuben ikus dezakezue.



Txistularien kalejirek herriko kaleak alaitu zituzten

Euria egin zuen arren, ederki ospatu zuten Eibarko IV. Txistu Eguna. Usartza Txistulari Taldekoek eta beste herri batzuetatik etorritakoek zapatu arratsalde osoa eman zuten batetik bestera, kalejiran, eta azken orduan, tronpetista eta soinu-joleek lagunduta, erdialdeko kaleak txistu-hotsekin alaitu zituzten.



Bewis de la Rosa raperoak kontzertua emango du

Bewis de la Rosak *Amor más que nunca* bere lehen albuma aurkeztuko du maiatzaren 11n, 22:30ean Untzagan hasiko den kontzertuan. Izen artistikoaren atzetik dagoen Beatriz del Monteren berbetan “landa giroko rap” musika egiten du. 90.eko hamarkadan Madrilgo periferian hazi bazen ere, diziplina anitzeko artista honek harreman estua izan du Cuenca Villamayor de Santiago herriarekin, hortik bere musikaren estilo berezia.



Hasi dira Sanjuanetako danborradetarako prestatzen

Sanjuanetako danborradetan parte hartuko dutenen entseguak orain dela pare bat aste hasi dira. Bai umeez bai helduek astero egingo dituzte saioak, astean behin, eguaztenetan: lehenengo umeen danborradarako entseguak egingo dira, 19:00etan, eta jarraian, 20:00etan, helduen txanda izango da. Saioak betiko tokian, Bittor Sarasketa kalean dagoen Beistegi eraikinean egingo dira. Bestalde, Danborradaren antolatzaileek esan dutenez, San Juan bezperan egingen den helduen danborrada aurten lehenago hasiko da, 22:00etan.



Gaur abiatuko da Argazkilaritza Maiatzean, erakusketa guztiak zabaldua

Klub Deportiboko argazkilaritza batzordeak antolatzen duen Argazkilaritza Maiatzean-en egitarauaren baitan, estatu mailako argazkilarionen lanak ikusi ahalako dira gaurtik aurrera, maiatzaren 26ra arte, Portaleko erakusketa aretoak, Topalekuk, Untzaga Gizarte Etxeak, Portalea tabernak eta Klub Deportiboak hartuko dituzten erakusketetan. Portalean egongo da erakusketa nagusia: Iñaki Marcaidaren *Momentuaren aurretik eta ondotik*, Katy Gomezen *Ellas, elles, they...*, Adolfo Olmedoren *Costa Agata* eta Diego Pedraren *Distopia* izenburukoak erakutsiko dira bertan. Gaur 19:00etan zabalduko dute, eta jarraian Topalekura joango dira, Deporreko argazki taldeko Txema Artetxeren *Un lugar de leyenda* izenburukoa inauguratzera (piskolabisa egongo da). Hauekin batera, 51. Gipuzkoa Nazioarteko Sariko lanak Untzaga Gizarte Etxean ipiniko dituzte ikusgai, eta Argizaiola Sarikoak Deporren bertan. Klubeko Argazkilaritza batzordeko kideen lanak, berriz, Portalea tabernan ikusi ahal izango dira.

Bihar arratsaldean Topaketak kalean

Bestalde, bihar 17:00etatik 20:00etara kaleko topaketen txanda izango da, Untzagan: beste batzuetan bezala, nahi dutenei erretratoa egingo diote, argazkiak erakutsiko dituzte, "argazkilaritza kalera atera eta jendeari gerturatzeko asmoz, dohainik".

Hurrengo asteburuko zapatuan (maiatzak 11), EHA-TE Kongresua egingo da Portaleko areto nagusian, goizeko 10:00etatik aurrera. Eta maiatzaren 18an, "Anatomía de una foto" tailerra eskainiko du Tino Sorriano, goiz eta arratsaldeko saioetan banatuta (informazioa eta izen-ematea argazkilaritza@deporeibar.com helbidean). Egitaraua ixteko, maiatzaren 26an argazki rallya egingo da.



Gurpil gaineko ikuskizun musikala, goiz eta arratsaldez

Aste honetan hasi den Debabarreneko Eskola arteko 39. Antzerki Erakusketaren eskutik, kale-antzerkiarekin gozatzeko aukera izango da. Izan ere, Eibarko Kulturak antolatu duen programazioan, ikasleentzako emanaldekina batera, kaleko hainbat ikuskizun eskainiko dira. Horrela, bihar Demode Quartet taldekoek *Gurpil gainean* ikuskizun musikala aurkeztuko dute, bi saiotan (12:30ean eta 19:00etan), Errebaleen hasita Untzagaraino. Umore-dosi handiak dituen kale-antzerki horretan laukoteak *a capella* abestuko du, kuartiziklo gainean kaleetan zehar dabilzan bitartean.

Dantza Udalekua kiroldegian

Aurten ere Dantza Udalekua egingo da Ipurua kiroldegian, ekainaren 26tik uztailearen 24ra. Joan nahi dutenek hilaren 12ra arteko epea daukate aurretiko izen-ematea egiteko (zozketan parte hartzeko). Ipurua kiroldegiko atezaintzan edo eibarkirola.eus webgunean eman daiteke izena. Udalekuaren prezioa 38,50 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat, eta 77 eurokoa beste guztientzat.

Pagatxaren zine-forum feminista

Datorren barixakuan, maiatzaren 10ean, izango da Pagatxa emakume taldearen zine-forum feministaren hurrengo saioa, 18:30ean, Portaleko areto nagusian. Audrey Diwan zuzendariaren *El acontecimiento* filma emango dute eta, ondoren, Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatuko du solasaldia. Sarrera doan da.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			8	4			
	7	2					5
4		5			1	8	
1							2 9
	8	4	3		5	1	6
5	6						4
		3	1			7	5
	4					2	1
			4	3			

8	4	3	2	1	7	5	6
7	2	5	1	8	4	3	6
4	5	1	8	3	2	7	6
1	8	4	3	5	1	6	2
5	6	3	1	7	5	4	2
2	9	8	4	3	6	1	7
3	6	7	5	1	8	4	2
6	1	2	7	5	4	3	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	5	3		7			
	7			5		1	
2			4				5
		7	1	6	5		
8							3
			8	2	3	7	
9				2			7
		1		8			9
			9			4	5

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK

Maiatzak 3/9

BARIXAKUA 3

SANTA KURUTZ JAIK

17:30 Kanpai-errepika.
18:00 Meza, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Santa Kurutzeko ermita.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

19:00 Argazkilaritza Maiatzean-eko erakusketak zabaltea. Portalea eta Topaleku.

UMOREZKO BAKARRIZKETA

20:00 "FutbolisTOK", Zuhaitz Gurrutzagaren eskutik. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 4

SANTA KURUTZ JAIK

10:30 Kanpai-errepika.
11:00 Hamaiketako, Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitilariak eta Usartza taldeko txistulariak girotua.
12:00 Dantza emanaldia, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik.
12:30 Erraldoiak, buruhandiak eta haurrentzako jolasak.
13:00 Herri kirolak Karmele Gisasola, Uxue Ansorregi, Julen Kañamares eta Ugaitz Muguerzaren eskutik.
14:30 Bazkaria, Ixua jatetxean. Ondoren, erromeria, Oier Balzola eta Unai Andonegi alaitua.
19:30 Esku-pilota lehiaketa (barruska). Sariekin. Arrateko frontoia.

ARTISAUTZA ETA ELIKADURA AZOKA

11:00 eta 20:00
Ipuruako Merkatu Plaza.

ANTZERKIA

12:30 eta 19:00 "Gurpil ganean". Ikuskizun musikala. Debarreneko eskola arteko 39. antzerki erakusketa. Errebaletik Untzagara.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

17:00/20:00 Argazki Topaketak kalean. Untzaga.

MUSIKA

20:00 Mikel Gaztelurrutia Trio. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DOMEKA 5

TXIRRINDULARITZA

09:00 53. Valenciaga Oroitzarrea. Errepideko Espainiako Kopa Lasterketa. Elite eta SUB 23. Untzaga.

SANTA KURUTZKO JAIK

09:45 Santa Kurutzera igoera, Urkizuko iturritik. Saria zozketatuko da parte-hartzaile guztien artean. Izen-ematea 09:30ean Urkizuko iturrian.
10:30 Kanpai-errepika.
11:00 Meza nagusia, Santa Kurutzeko ermitan. Piskolabisa, trikitilariak girotua, hurbiltzen diren guztientzat.
12:30 Motx magoaren ikuskizuna.
13:30 Txapel-jaurtiketa, nahi duten guztientzat.
14:30 Jaiean amaiera, kanpaiekin.

ARTISAUTZA ETA ELIKADURA AZOKA

11:00 eta 15:00
Ipuruako Merkatu Plaza.

ASTELEHENA 6

HITZALDIA

18:00 "Internet, pantailak, bideojokoak, sare sozialak... Onurak eta gatazkak. Nola kudeatu?", LH-ko ikasleen gurasoentzat. Portalea.

HITZALDIA

18:30 "Emakumeen aurkako indarkerien continuum-a Guatemalan, barne gatazka armatutik gaur arte", Cristina Chiquín Rodríguez argazkilaria guatemaldarraren eskutik. Andretxea.

MARTITZENA 7

ANTZERKIA

15:00 "Zimurren artean kontukantari", Haur Hezkuntzako 5 urteko gela eta LH-ko 1. mailakoentzat. Debarreneko eskola arteko 39. antzerki erakusketa. Coliseo antzokia.

EGUAZTENA 8

MINTEGIA

08:45/13:00 Euskararen sozializazioa eta transmisioa XIV. Mintegia. ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. SD Eibarren prentsa aretoa (Ipurua).

ANTZERKIA

09:30 "Eibar School Musical", Lehen Hezkuntzako 6. mailakoentzat.
19:00 Emanaldi irekia. 5 euro. Debarreneko eskola arteko 39. antzerki erakusketa. Coliseo antzokia.

HITZALDIA

18:00 Buruko osasun arazoa duten pertsonak babesteko neurri juridikoei buruz, Esther Ezponda abokatua eskutik. Agifes elkarteak antolatuta. Portalea.

DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (B. Sarasketa).

EGUENA 9

ANTZERKIA

15:00 "Kutxartean". LH 1., 2. eta 3. mailakoentzat. Debarreneko eskola arteko 39. antzerki erakusketa Coliseo antzokia.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaietentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

HITZALDIA

18:00 "Internet, pantailak, bideojokoak, sare sozialak... Onurak eta gatazkak. Nola kudeatu?", DBH-ko ikasleen gurasoentzat. Portalea.

FRAKUSKETAK

Maiatzaren 8ra arte:
- "LGTBIQ+fobia gorroto delitu eta diskurtsoak". (Andretxea).

Maiatzaren 3tik 26ra:
- ARGAZKILARITZA MAIATZEAN. (Portalea, Topaleku, Untzaga Gizarte Etxea, Portalea taberna, Depor).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **5an:** 20:00
- **6an:** 19:30

“Pequeñas cartas...”
KOMEDIA



2023/Erresuma Batua/102'
Zuzendaria: Thea Sharrock
Aktoreak: Olivia Colman,
Jessie Buckley, Anjana Vasan
Komedia beltza/Errealitatea

2 ARETOA

- **4an:** 19:45, 22:30
- **5an:** 17:00, 20:00
- **6an:** 19:30

“Ooh La La!”
KOMEDIA



2024/Frantzia/91'
Zuzendaria: Julien Hervé
Aktoreak: Christian Clavier,
Didier Bourdon, Sylvie Testud
Familien artekoa/ADN

ANTZOKIA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30⁽¹⁾
- **5an:** 17:00⁽¹⁾ Aretoa, 20:00
- **6an:** 19:30

“Rivales”
DRAMA



2024/AEB/131'
Zuzendaria: Luca Guadagnino
Aktoreak: Zendaya,
Josh O'Connor, Mike Faist
Erromantzea/Tenisa

ANTZOKIA

- **4an:** 17:00⁽²⁾ Aretoa
- **5an:** 17:00

“Un reysupermono”
ANIMAZIOA



2023/AEB/101'
Zuzendaria: Dick Zondag
**Komedia/Animaliak/
Umeendako**

<p>FUNEUSKADI Funerariak</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funerariak</p> <p>TANATORIO KREMATORIO LAGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Elbar: Otaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Elbar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Esteban Plazaola Zubizarreta
7. URTEURRENA (2017/05/03)

“7 urte dagoeneko. Sekula baino presentean zaude gure bizitzan eta, batik bat, gure bihotzetan. Eskerrik asko, aitaxo, 7 urte hauetan dirdira handiena egiten duen izarra izanagatik, eta baita gure gidari izateari inoiz ez utzi izanagatik ere”

MAITE ZAITUGU (ZURE EMAZTEA ETA ALABAK)

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **CAROL**, gure printzesak astelehenian 9 urte egingo dituu-eta. Famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, **MARIA!!!!** Gure printzesak 8 urte egingo dituu-eta hillaren 8xan. Musu haundi bat zure famelixa guztiaren partez. Aupa, txapelduna!!!!



Zorionak, **LAURA** Bogni, aurreko domekan 11 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu!



Zorionak, **MAIALEN** Gure sorgiñak 9 urte dituu honezkero! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **KIRA**, gaur 2 urtetxo betetzen dozuz-eta. Asko maitte zaittugu. Patxo bat famelixaren eta, batez be, Ekhi-ren partetik.



**Juan Angel
Agote Churruca**

1950/07/02 – 2024/04/24



Zu bazoaz,
baina zukanako
gure maitasuna ez.

Zure bizipoza
eta alaitasuna
ez ditugu inoiz
ahaztuko.

Ezagutu zintuztegunon
bihotzean betirako
biziko zara.

- ETXEKOAK -



Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Eibarko erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea (denak kanpora), balkoia eta 2 komun. Eguzkitsua eta oso egoera onean. 616489540.

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai abuzturako. 3 logela. Garajea eta terraza itsasora bistarekin. 605728340.
- Senar-emazte arduratsuek etxea hartuko lukete alokairuan. 667060292.
- Pisua alokagai Eibarko erdigunean. 2 logela. Ilogailuarekin. Garajea aukeran etxepean. 631419458.
- Apartamentu edo pisu txikia alokatuko nuke Eibarren. 688666220.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Lokala alokagai I. Ojanguren 1ean. 40 m². Komunarekin. Aproposa bulegorako, almazenerako, e.a. Prezio onean. 676556691. Vicente.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 680808125.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak zaintzeko eta manikura egiteko. 61321786. Alejandra.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeako garbiketarak egiteko. Orduka. 667060292.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo asteburuetan ere. Esperientzia. 641756213. Mari Jose.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). 611215176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). 612202116.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldean edo gauzez. Esperientzia. 655094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko aratsaldean edo gauzez. Esperientzia. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 658657807.
- Neska eskaintzen da nagusiak (habilitazioarekin) edo umeak zaintzeko. Erreferentziak eta esperientzia. 604120104.

4.2. Langile bila

- Pertsona behar da Eibarko Zapore izozkidendan lan egiteko. Zapatu eta domeketan (17:00-19:00). 699913141. Maitte.
- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Manikura, pedikura eta depilazioan espezializatua. 603344258.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Astebururako edo jornada erdirako. 661955980.
- Pertsona behar da uztailean goizetik haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskaraz jakitea baloratuko da. 670461346.
- Ermuko Aiera Estilistak ileapaintzailea behar du. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. 626524949. Bidali curriculum: ayerravg@gmail.com

- Ermuko hortz-klinika baterako auxiliarra edo administraria behar da uztailean amaiera arte (baja bat kubritzeko). Goizez. niklinika@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Monitorrea salgai. Kalitate onekoa eta ia berria (Monitor gaming- HP 25x, 24.5", Full HD, 144 Hz, 1 ms). Prezioa: 100 euro. 649105442. Elena.

6.4. Bestelakoak

- Domeka eguerdian, apirilaren 28an, Elgetako "Bolatoki" parkean 9 urteko neskatila baten beroki urdin argia laga genuen ahaztuta. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. 615767048.



M
Meka
Lanbide Eskola



DOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
 - METAL ERAIKUNTZAK
 - GIZARTEBATZEA
 - GENERO-BERDINTASUNA SUSTATzea
 - HAUR HEZKUNTZA
 - DIETETIKA
 - AUTOMOZIOA
 - KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA ***BERRIA!**
- Zaintza eta Enkarguak eta Oinarrizko Zaintza
2024/25 urterako

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURIA ETA GALDARAGAITZA
- MENDEKOTASUN ECOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERZANTZAREN LAGUNTZA
- MAKINARIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KAPROZERIA
- WELDABE AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTISOAK

- IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN MANTENTZE ETA SEGURITASUNA [DOI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTISOAK]
- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENTZA [ERDI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTISOAK]

C MAILAKO GRADUAK

- ATMOSFERA NATURALEKO ETA BARESTUKO SOLDADURIA ***BERRIA!**

**LANBIDE HEZIKETA
ESKAINNTZA 2024/25**

Hazi, hezi, **Mekan** ikasi.

AURREMATRIKULA
Maiatzaren 6tik 24ra



bulegoa@meka-elgoibar.eus
Telf. 943 748 019

www.meka.eus

ALBERTO ENKANTZA
Mekanika, 24
2024/25/2025/26ko Zikloak

EZENBINO ENKANTZA
Mekanika, 2
2024/25/2025/26ko Zikloak



zarelakopara

eta kitto!
euskarā elkarteā

Egin zaitetz bazkide!



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgia,
Periodontzia, Inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgia.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com